

Foru Aldundiak iragazki berdeak sortu ditu Asparreneko industrialdean, karbono hustubide gisa erabiltzeko

Klima aldaketa arintzen laguntzen du, ezarritako landarediak karbonoa lurpean sartzeko duen eginkizuna dela eta, eta Lurraldea hiriguneetako eta lan inguruneetako bero boladen aurrean egokitzen laguntzen du

Gasteiz, 2024eko otsailaren 22a. Arabako Foru Aldundiak amaitu ditu Asparrena-Donemiliagako industrialdean iragazki berdeak sortzeko lanak, zeinak eskala txikiko karbono hustubide izango baitira. Esku hartze horren bidez, zuhaitz eta zuhaixka espezieak landatu dira, bi hektarea inguruko azaleran, hiri eta industria garapeneko eremuan, eta "Araba, uraren eta biodibertsitatearen erreserba" proiektu estrategikoaren barruan dago.

"Arabako industrialdeek espazio libreak eta berdeguneak izan ohi dituzte hurbileko ingurunean, eta, irizpide ekologikoen arabera birlandareztatzeko esku hartzeekin, eginkizun ekosistemiko oso garrantzitsuak bete ditzakete eremu horietako ingurumen eta paisaia kalitatea hobetzeari dagokionez. Bereziki, berokuntza klimatikoa arintzera eta hartara egokitzera bideratutako azpiegitura berde berri gisa", nabarmendu du Amaia Barredo Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak.

Iragazki berdeak sortzeak klima aldaketa arintzen laguntzen du, ezarritako landarediak karbonoa lurpean sartzeko duen efektua dela eta. Eta, gainera, hiriguneetako eta lan inguruneetako bero boladen aurrean Lurraldea hobeto egokitzeko aukera ematen du.

Egindako lanen barruan bi landaketa mota egin dira. Alde batetik, eremu batean, hiru metrotik behin landare bat jarri da. Ametzaga errekaaren ertzetik gertuko zona batean, berriz, ibaiertzetan berezkoak diren espezieak landatu dira, hala nola haritzak, astigarrak eta lizarrak, eremu horretan egon daitezkeen landare espezieak.

Eta, bestetik, zuhaizti landaketak. Haietan, mikrohabitat bat sortzen da, hainbat espeziek aprobetxatu ahal izan dezaten inguruko faunaren babesleku gisa, bereziki intsektuek, hegaztiak eta ugaztun txikiak. Esku hartze horiei esker, bertako espezieen ekosistema txikiak sortzen dira, biodibertsitatea eta airearen hobekuntza sustatzeko balio dutenak.

Barredok azpimarratu duenez, esku hartze horren helburua da "industrialdeek dauden eremuetan sor ditzaketen ondorioak arintzea, eta uretako ekosistemak kaltetzen dituzten substantzien edo metalen kutsadura eta arrastatzea minimizatzea".

Lan horiek egiteko aurrekontua 89.539,53 euro izan da.